




Kuadrilla Izutuak etxean
geratu behar du

The Scared Gang bildumako pertsonaiek, irudiek eta istorioek copyrighta dute.


Autoreak eta artistak COVID-19aren aurrean istorio hau eskaintzen dute umeentzako baliabide gisa.
Debekatuta dago liburu hau helburu komertzialekin erreproduzitzea.

Liburu honetako informazioa Erresuma Batuko gobernuak COVID-19aren inguruan zehaztutako gidalerroetan oinarrituta dago, 2020ko apirilaren 3ko datarekin.


Kontsulta ezazu webgune hau
www.sensoryattachmentintervention.com
The Scared Gang bildumari buruzko informazio gehiagorako.




Kuadrilla Izutuak etxean
geratu behar du.




Ezin dira eskolara joan.



Ezin dira parkera joan, ez
lagunekin jolastu...




...ezta aitona-amonen etxera
joan ere.




Arrazoia da COVID-19 izeneko
germen txikitxo bat munduan
zehar bidaiatzen dabilela

Bisitatzen dituen tokietan, jendeari
sukarra, eztul desatsegin bat eta
buruko mina ematen dizkio.


Kuadrilla Izutuak badaki zer den
gripea izatea, eta hortaz, dudarik
gabe, ez dute harrapatu nahi.



Hain da txikia germena, ezen ezin
duzun hura ikusi, ukitu, usaindu,
dastatu edo entzun.





Kuadrilla Izutuak ez zekien zer
egin germenak haiei ez bisita
egiteko.




Medikuak esan zien ez zutela
zertan kezkatu, erantzuna oso
sinplea zela.

Hiru gauza besterik ez duzue egin
behar:


- 
1. Oraingoz, etxean
geratu behar duzue.
 2. Eskuak garbitu
behar dituzue.
 3. Ondo pasatu!




Kuadrilla Izutuak galdetu zuen:
-Zergatik gelditu behar dugu
etxean?





Medikuak esan zien germena
pertsona batetik bestera
pasatzen dela.



Mundu guztia etxean geratzen
bada, germenak ezin du hori egin.



Hau ere esan zien:
-Kanpora joan zaitezketen zuekin
bizi den jendearekin,



baldin eta besteengandik urrun
egoten bazarete.

Kuadrilla Izutuak
galdetu zuen:
-Nola mantendu zaitzake salbu
eskuak garbitzeak?

Medikuak erakutsi zien germenek
xaboia gorroto dutela. Izan ere,
ihes egiten diote.



Esan zien:

-Eskatu iezaiozue heldu bati
etxean konketa bat urez betetzeko,




eta gero uretan piperbeltz pixka
bat botatzeko.



Atzamarrak xaboian bustitzeko eta
gero uretan sartzeko eskatu zion
Kuadrilla Izutuari.



Kuadrilla Izutuak ezin zuen sinetsi
zer gertatzen zen.
Piperbeltzak xaboiari
ihes egiten zion!




Medikuak esan zuen hori gertatzen
dela germenekin eskuak garbitzen
dituzunean.

Gero galdetu zuten ea zergatik den
garrantzitsua ondo pasatzea.

Medikuak azaldu zien ondo
pasatzeak eta zoriontsu izateak
osasuntsu egoten laguntzen
digutela.



Interesatzen zaizkizun eta
gozatzen dituzun gauzak egiteak
indartsu mantentzen zaitu.



Kuadrilla Izutuari izugarri gustatu
zitzaion ideia.
Maite dute ondo pasatzea!

Kuadrilla Izutua jada ez dago
izututa, badakitelako hiru gauza
sinple eginez gero:

1. Oraingoz etxean geratu
2. Eskuak garbitu
3. Ondo pasatu!

salbu, osasuntsu, eta batez ere,
zoriontsu egongo direla.

Testua:
Éadaoin Bhreathnach

Ilustrazioak:
Sighle Bhreathnach-Cashell

Itzulpena:
Irene Barrio Solé